

Euskarazko literatur testuak sarean: folksonomia baterako proposamena

Imanol Epelde Pagola
<http://27zapata.com/>
imanol@27zapata.com

Aurkibidea

- 0 Sarrera
- 1 Lanaren justifikazioa
 - 1.1 Gizarte interesa
 - 1.2 Ikerketa interesa
 - 1.2.1 Literatur corpora sarean
- 2 Literatur testuen definizio baterantz
 - 2.1 Ikuspegi diakronikoa lehenetsita
 - 2.2 Hizkuntza literarioaren balio konnotatiboa
 - 2.3 Harreraren estetika
 - 2.4 Literatura digitala, garai digitaletan
 - 2.5 Literatur arloak, etiketa bihurtzeko
 - 2.5.1 Literatura idatziaren barruan
 - 2.5.2 Ahozko literaturaren barruan
 - 2.5.3 Literatura digitalaren barruan
- 3 Interneten bilketa eta bilaketa lana egiteko metodologia baterantz
- 4 Edukiak antolatzeko moduak
- 5 Etiketei balio semantikoa erantsita
 - 5.1 Hamabost atributuak eta bakoitzari esleitutako etiketak
- 6 Ondorioak
- 7 Bibliografia
 - 7.1 Webliografia

0. Sarrera

Multimedia eta komunikazioa. Horixe izan dugu langai 2009-10 ikasturtean egin dugun [masterrean](#). Azken lana aurkeztu behar dugun honetan, ikasitakoaren talaiatik ekarpen berria egin nahi dugu. Izan ere, interneten literaturarekin zerikusia duten euskarazko eduki guztiak biltzeko eta sailkatzeko oinarriak jarri nahi ditugu. Helburua da egindako bilketa lan guztia denek kontsultatzeko eta erabiltzeko moduan jartzea eta jendeari bilketa lan hori osatzeko aukera eskaintzea. Horretarako, sailkapena egiteko etiketa sozialak erabili ditugu, folksonomian oinarrituta, sailkapen taxonomikoa egiteko gero.

Jarraitu den prozedura honakoa da. Lehenbizi lan honen justifikazioa agertuko dugu, lan hau egitearen garrantzia azaltzeko. Ondoren, literaturaren definizioan eta ataletan sakonduko dugu, zer bildu nahi dugun zehazteko. Interneten bilaketa lanak nola egin ditugun argituko dugu jarraian. Eduki guztiak biltzean, eduki horiek nola sailkatuko ditugun ere azalduko dugu. Eta azkenik, egingo den lanaren erakusgarri diren adibide praktikoak erakutsiko ditugu. Kontsultak egin eta bilketa berriak sartzeko moduan.

1. Lanaren justifikazioa

Lan honek funtsean gizarte interes konkretuei eta ikerketa interesei erantzun nahi die¹, jarraian ikusiko dugun gisan. Zein gizarte interes bete nahi dituen zehaztetik hasiko gara lehenbizi, ikerketa interesak zehazteko gero.

1.1. Gizarte interesa

Euskal Herriaren hizkuntza eta nortasuna biziberritzeko gakoetako bat kultur gintzan edo sorkuntzan datza. Mende berri honetako egoera globalizatuan, gure kultur gintzak, gure sorkuntzak, desafio handiak ditu. Desafioak arrisku dira, eta aukera. Desafio eta aukera horiei aurre egiteko, kudeatu egin behar ditugu gai honi buruzko jakintza arloa, ikerketa arloa, formazio arloa eta oro har, sorkuntzaren inguruko estrategia-guneak.

Sormenaren bitartez, jatorrizko hizkuntzek eta kulturek beren balio erantsi aparta birsortzen jarraitzen dute. Sormen horren bitartez, hizkuntza komunitateak herri gisa bizitzeko borondatea, autoestimua, eta iraganeko eta etorkizuneko ametsak elikatzen ditu. Kultur sormena da komunitate baten erregai sinbolikoa. Komunitatea zer den idazten, abesten, sinbolizatzen eta ospatzen du, izan nahi duena eta amesten duena. Euskarari dagokionez, literatura, bertsolaritza eta abestia oso garrantzitsuak izan dira kultura berpizteko ahaleginak elikatzeko. Hori guztia aintzat hartu gabe, zaila da hizkuntza gutxitu baten hizkuntza-komunitate batek bere nortasuna suspertzeko indarra eta motibazioa izatea. Eta etorkizunean ere garrantzitsuak izango dira. Etorkizuneko literatur sorkuntzaren ildoak aztertu eta proban jartzea interesgarria delako.

Horregatik da garrantzitsua gaur egun interneten literaturarekin lotura duen eduki guztien bilketa lana egitea, eragile eta sortzaileak zein diren identifikatzea, egoeraren mapa bat egitea alegia. Literatura eta teknologia digitala batzeak sortu duena ikertzea interesgarria ez ezik ezinbestekoa baita datozen belaunaldiei, jaiotzetik mundu digitala ezagutu dutenei, sorkuntza propioa eskaintzeko. Master honetan bertan egindako beste lan batean 12-18 urte bitarteko gazteak

1 Proposamen honek HIZLAN proiektuaren laguntza izan du ondorengo hilabeetan garatzeko (DIPE 08/16).

interneten zertan eta zein hizkuntzetan ibiltzen diren aztertu genuen². Lan horretan egindako ondorioetan argi geratu zen, gazteek ondo pasatzeko asmoz jotzen dutela sarera, umorezko gauzen bila, entretenigarri bila. Zentzu horretan interesgarria izan liteke euskaraz egindako literaturak egindako eta egin dezakeen ekarpena, helburua jendea limurtzea den heinean.

Azkenik, irakaskuntza ere aipatuko dugu. Metodologia komunikatiboa erabiltzen da irakaskuntzan gaur egun. Hau da, egoera komunikatibo erreala planteatzen dira eta horietan defenditzeko tresnak ematen zaizkie ikasleei. Alde horretatik, eremu digitalak errealitatearen parte bihurtu diren garai hauetan, ikasleei estrategia diskurtsibo eta linguistiko berriak lantzeko baliagarri gerta dakizkieke proposamen honetatik egin ahal izango diren ikerketa lanek.

1.2. Ikerketa interesa

Horretarako, hausnartu egin beharko da, esperimentu guneak eraiki. Katalunian sortutako Hermeneia³ proiektuan bezala. Hermeneia proiektuak eredu interesgarria ematen digu mota honetako ikerkuntzaren aplikagarritasunean sakontzeko. Honako ikerketa lerroak lantzen dira proiektu horretan:

a) Hipertestua eta literatur ikerketa: teknologia berriek ematen dituzten erreminta berriak aztertzeak, produktu literarioaren sorkuntza, banaketa eta irakaskuntza prozesuetan izandako ondorioei buruzko hausnarketa teorikoa eskatzen du. Aztertu eta definitu ahal izateko ondoren, literatur irakaskuntzan hipertestuaren teoriak nola eragiten duen. Izan ere, literatura gaur ezagutzen dugunetik aldatzen ari da, euskarri digitalek emandako aukerak baliatuz. Eta irakaskuntzan horrek ere izan behar du isla.

b) Literatur teoria eta literatura erkatua sarean. Literatur teorian ikerketa eta ikuspegi berriak sortu dira eta sortuko garai digitalean. Literaturaren historiak testu corpus bat eman digu. Hori erabili genezake erkaketak egiteko edo literatur teorian sakontzeko, gaur egun, literaturan sistema informatikoak aplikatzeak sortutakoa aztertzerakoan. Bide beretik, literatur kritika egiteko ikuspegia ere aldatuko da. Azkenik, literatura erkatuak sorkuntza lokala eta globala konparatzeko aukera ematen du, literatur berbaldian edo ikuspegi soziologiko-kulturalean izandako aldaketak sumatzeko.

c) Produkzio eta harrera modu berriak sarean. Orain arte inprimatutako testu ugari, euskarri digitalean aurkitu daitezke. Baina hori bakarrik ez da literatura elektronikoa, literatura digitala edo e-literatura dei genezakeena. Ingurune digitalean eta ingurune digitalerako espresuki sortutako produkzioa da literatura digitala. Zentzu honetan helburu izan daiteke sortzen ari den produkzio berri horren inguruko azterketa lana egitea: elkarreraginezko fikzio modu berriak, poesia hipertestuala, ziberantzerkia...

1.2.1. Literatur corpora sarean

Orain arte aipatutako ikerketa lerroez gainera, euskaraz sarean literaturarekin zerikusia duten gune guztiak identifikatuta, daukaguna aztertu eta sailkatu ahal izango dugu, hizkuntzak berreskuratzeko

2 Multimedia komunikazioa masterrak moodlean duen gunean aurki daiteke lana, izenburu honekin: *Euskarazko komunikabide multimedia baten proiektua*, www.gaztegaragazte.org

3 HERMENEIA, <http://hermeneia.net/esp/index.html>

prozesuan, beste oinarritzko erreminta bat izateko: corpora. Era honetan euskarazko corpusgintzan aurreikusitako ekarpenak azalduko ditugu jarraian.

Euskaraz hizkuntzaren corpora estandarizatu eta garatu egin da azken 40 urteetan. Hau da⁴, idazkera edo idazkerak bateratu eta estandarizatu, terminologia berria elaboratu eta oro har, hizkuntza egungo eta etorkizuneko funtzioetarako prestatzeko estrategia guztiak lantzen ari dira. Funtsezko urratsa da. Ezinbestekoa da ondoren jatorrizko hizkuntzan irakasteko, eta gainerako ekintza nagusietarako. Gure lan honetan bilduko ditugun guneekin, aurrez ere biltzen hasitako corpusari, beste bat erantsiko genioke, interneten sortutako literaturari dagokiona, erregistro kontrolatu eta ez kontrolatuan; desberdina baita instituzio edo erakunde ofizial baten hizkuntz erregistroa eta arau hausteak onargarri ez ezik beharrezko izan daitezkeen blog pertsonalenak, esaterako.

Webak corpusgintzan duen lekua zein den eztabaidatzen da gaur egun corpus hizkuntzalaritzan. *Web for corpus* eta *Web as corpus* deitu diren proposamen edo joerak bereizten dira eztabaida horretan⁵. Lehen ikuspegia da internet corpora eratze edo elikatzeko testu iturritzat erabiltzea (web for corpus). Bi modutara egin ohi da hori: orri edo esteka jakin batzuetatik abiatuta estekak jarraitzea, edo hitz batzuetatik abiatuta bilatzaileak erabiltzea. Bigarren ikuspegia berriz, *web as corpus*, internet zuzenean corpus bat balitz bezala kontsultatzea da. Bide horretatik, hainbat tresna egin dira interneten hitz bat edo batzuk bilatzeko aukera ematen digutenak, bilatzaileak egiten duten gisara, baina emaitza, dokumentu zerrenda izan beharrean, dokumentu horietako agerpenak euren testuinguruetan erakusten dituztenak.

Proposamen biek azpimarratzen dute oraingo eta etorkizuneko corpusgintzan webak duen garrantzia: webetik zuzenean hartuta edo webetik hartutako testuak corpusak aberasteko erabilita, weba da corpusgintzaren aztergune eta aztergai nagusi. Euskararen kasuan ere bideak zabaltzen ari dira ildo honetan. Elhuyar Fundazioa da aitzindaria horretan, EHUKo Informatika Fakultateko IXA taldearen laguntzarekin, CorpEus⁶ sortua baitute. Gaur egun, internet euskarazko corpus gisa kontsultatzeko aukera ematen duen tresna on line dago⁷. CorpEusek internet euskarazko corpus erraldoi bat balitz bezala kontsultatzeko aukera ematen du. Sartutako hitzaren (edo lemaren) leman bidezko bilaketa egiten du interneteko euskarazko orrien artean eta orri horietan dauden hitzaren agerpen guztiak erakusten ditu bere testuinguruan, hainbat daturen arabera grafikoekin batera.

Lan zenbaitetan⁸ bezala honelako arloak aztertu daitezke corpora oinarri hartuta: lexikoa, sintaxia, semantika, itzulpengintza, hizkuntzak izandako aldaketa diakronikoak, komunikabideetako erregistro eta generoak, multimedia komunikazioaren erabiltzen diren baliabide eta estrategia linguistiko eta diskurtsiboak... Kontuan izan behar da interneteko edukiak helburu linguistikoz aztertzen hasi baino ez direla egin, eta etorkizunean sor litezkeen ikerketak sakonagoak eta zehatzagoak izan daitezkeela. Ezin horrelakorik egin, ordea, corpora bildu gabe badago.

Dena dela, badira gaur egun corpusetan oinarritzen diren proiektuak. Eta guk hemen azaltzen dugun lana izan daiteke haientzat ere baliagarri. Esaterako, EBALUA egitasmoarentzat. 1968an Euskaltzaindiak euskara batua sortzeko bideari ekin zion, eta hizkuntza idatziari buruz arauak eta

4 Garabide Elkartea, 2010, *Euskararen berreskuratzea, Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*, Garabide

5 ARETA N., GURRUTXAGA A., LETURIA I., *Begiratu bat corpus-baliabideei*, BAT Soziolinguistika aldizkaria.

6 LETURIA I., GURRUTXAGA A., ALEGRIA I., EZEIZA A., *CorpEus, a 'web a corpus' tool designed for the agglutinative nature of Basque*, Elhuyar R&D, IXA taldea, 2007

7 ELHUYAR, <http://www.corpeus.org/cgi-bin/kontsulta.py>, CorpEus, Internet euskarazko corpus gisa,

8 VOLK, Martin, *Using the Web as Corpus for Linguistic Research*, University of Zurich, Seminar of Computational Linguistics. Winterthurerstr.

erabakiak hartu zituen. Proiektuaren azken xedea da Euskara Batuaren ezarpenaren eta elaborazioaren azterketaren oinarri teoriko-metodologikoak finkatzea, eta azterketa hori abian jartzeko protokolo esperimentalak diseinatzea. Horretarako, noski, corpus bat osatzen ari da, hemen egingo dugun bilketa lana baliagarri gertatuko zaio.

Ricoterm ikerketa-egitasmoari ere egingo dio ekarpenik taxonomia lan honek. Egitasmo honen xedea da gaztelaniaz, katalanez, galegoz eta euskaraz idatzitako espezializazio arloko diskurtsoaren eta terminologiaren deskripzio eraginkorrak egitea. Xede horrekin lotuta, helburu aplikatu bat dago: Informazioaren Erauzketako (IE) hainbat teknikak eta, bereziki, Interneteko bilaketa-tresnek balia ditzaketen hizkuntza anitzeko baliabide linguistikoak sortzea. Ikerketa-taldeak badu, dagoeneko, linguistikoki prozesatutako testu-corpus bat hiru hizkuntzatarako (gaztelania, katalana eta ingelesa) eta egitasmo honetan aurreikusten du testu-corpus osagarriak eraikitzea euskararako eta galegorako. Euskaraz literaturarekin zerikusia duten testuekin ere corpus hori osatzen ariko ginateke.

Neologia Behatokiarentzat (Neobasque) ere egin lezake ekarpena bilketa lan honek. Neobasqueren helburua euskal hiztegia aztertzea da eta bereziki euskararen erabilera berrietan agertzen doazen hiztegi-elementu berriak identifikatzea. Horretarako komunikabideek ekoizten dituzten testuak erabiltzen dira hiztegi elementu berriak identifikatzeko. Gure arloari dagokionez, komunikabideetan sortutako eta interneten jarritako literaturarekin zerikusia duten testuak bildu genitzake corpus horretan.

Amaitzeko, HIZLAN egitasmoa ere aipatuko dugu. Lan honekin egingo den corpus bilketa interesgarria gertatuko baita. HIZLANek komunikazioaren kalitatea kudeatzeko ekoizpen linguistikoaren maila ezberdinak hartzen ditu aintzat (testu-maila, estrategia linguistikoena, eta lexikoaren zein terminologiaren erabilera), eta, hizkuntzaren kalitateak barne hartzen dituen hiru dimentsio hartzen ditu gogoan (zuzentasunarena, jatoritasunarena eta egokitasunarena, alegia). Hori guztia, hedabideetan, hezkuntzan eta administrazio publikoan euskararen hizkuntza kalitatean hobetzeko. HIZLAN proiektuak bi ildo horiek uztartu nahi ditu, eta oinarri zientifiko eta teknologiko aurreratudun produktu bat garatu nahian, hizkuntza-auditoriak eta zerbitzuak kalitate-irizpideen arabera eskaintzea erraztuko duena.

Web corpus gisa erabiltzeak oraindik orain arazo metodologikoak sortzen ditu⁹, baina oro har, webaren erabilerak egin ditzakeen ekarriak azpimarratzen dira corpus hizkuntzalaritzan (Biber eta Kurjian-en 2009, Fletcher 2009, besteak beste)¹⁰. Onuren artean, honako hauek nabarmendu dira:

- **Bat-batekotasunaren berri** izateko ematen digun aukera. Hizkuntzaren benetako erabileraren adibide dira corpus hauek: Webean dauden testu asko eta asko testu ez kontrolatuak dira. Estandarraren ezarpenaren azterketarako, esaterako, guztiz beharrezkoak.
- **Osagarritasuna:** Webean dauden testu mota edo genero asko testuinguru horretan, sarean, baino ez daude (blogak, wikiak, eztabaidarako foroak,..). Sarean ez dauden testuekiko erkaketarako ezinbesteko materialak dira.
- **Kostua:** weba libre da neurri handian. Web orriak eskuragarriak dira ikerlari eta ikasleentzat. Webetik informazio eta datu linguistiko ugari atera daiteke oso kostu txikian.
- **Adierazgarritasun maila:** Euskararen kasuan askotan zailtasunak ditugu corpus adierazgarriak, behar besteko hitz kopurua dutenak lortzeko. Hori da literaturaren kasua

9 BIBER, Douglas eta Jerry KURJIAN (2009) Towards a taxonomy of web registers and text types' in *Corpus Linguistic and the web*. Hundt, Nesselhauf & Biewer (ed.) Amsterda: Editions Rodopi, 109-131

10 FLETCHER, William H., 2009, 'Concordancing the web' in *Corpus Linguistic and the web*. Hundt, Nesselhauf & Biewer (ed.) Amsterda: Editions Rodopi.

neurria handian. Euskararen eta literaturaren kasuan, beraz, bereziki garrantzitsua izan daiteke webetik hitz kopuru handiko corpusak ateratzeko aukera.

Elhuyarreko kideek eginiko artikuluan¹¹ euskarazko eta beste hizkuntza batzuetako corpus-baliabideetan eta corpusgintzan egindako datu bilketa aurkezten da eta ondoren, zein bide hartu beharko litzatekeen hausnartzen da. Diagnostika egitean esaten da, euskaraz dauden corpusak espezializatuak direla eta euskaraz maila horretako urratsa eginda dagoela. Eta ondoren diote, euskaraz *ahozko corpus* izenez bataiatutako proiektu bateratu eta erreferentzial baten hutsunean sumatzen dutela. Eta webaren sorrerak corpusgintzari aukera berriak eskaintzen dizkiola aitortu ondoren, besteak beste etengabe elikatzen den testu bilduma erraldoia delako, digitalizatu eta erabiltzaile guztiek kontsultatzeko moduan, euskara beste hizkuntza askoren atzetik doala diote, eta beharrezkoa dela “internetarako joera horretan sartzea, corpus 'kontrolatuak' (ohiko corpusak, erreferentziazkoa, corpus espezializatuak...) alde batera utzi gabe”.

2. Literatur testuen definizio baterantz

Lan honetan literaturari buruz interneten euskaraz dagoen guztia biltzea erabaki dugu, hau da, ez soilik euskarazko literatur sorkuntza bera bakarrik, baita literaturari buruz euskaraz idatzi den guztia ere, eta euskarara ekarri den erdal literatura ere bai. Baina gure corpusean zein testu sartu eta zein ez erabakitzeke, euskarazko literatur testutzat zer hartuko dugun erabaki dugu. Izan ere, corpus baten erabilera anitzak dira eta euskaraz dauden literatur testuak mugatuak. Hortaz, euskarazko literatur testuak zeintzuk diren zehaztu dugu hasieran, eta ondoren, literatur testu horien artean zein sailkapen egiten dugun adieraziko.

Alegia, euskarri digitalean dagoen literatur testugintza nola sailkatu dugun azaldu dugu, testuen artean bereizketa handi bat eginez. Izan ere, testu batzuk euskarri digitaletan produzitu diren testuak dira, ondoren, digitalki kontsumitzeko pentsatuak eta beste testu batzuk, inprimatuak izan ondoren, interneten jarri dira. Desberdina da alegia, inprimatutako liburu bat sarera igotzea edo testu bat sarean soilik irakurtzeko pentsatzea. Biei deituko diegu literatura, baina bati digitala dela erantsiko diogu. Lehen kasuan orain arte literaturan egindako sailkapena egin dugu, baina literatura digitala sailkatzeko beste parametro batzuk beharko ditugu. Oinarrizkoenak bi: zein euskarri erabiltzen dituen testu horrek eta zein generotan dagoen idatzia.

Idea hori argi utzi ondoren, hasi gaitezen literatur testuak zer diren definitzen. Literaturaren definizioa ematea gero eta lan zailagoa den bitartean, edozeinek zalantzarik egin gabe adieraziko dizu ekintza literarioa non dagoen eta non ez. Hasteko, 'literatura' kontzeptuaren erro etimologikoa bera erreferentzia txarra da, 'littera' hitzetik baitator, eta 'idatzizko letra' du esanahi. Bere adiera, beraz, idazteko eta irakurtzeko artearekin loturik agertzen da. Horrek ahozkoatasuna baztertzen du, hain justu ere mendebaldeko literatur sorkuntzen jatorria bera kanpo utziz. Denok dakigu zertaz ari garen literaturaz ari garenean, baina konplikatuagoa da definitzen saiatzea. Ez baita batere erraza adieraztea zerk egiten duen testu bat literatura, zerk bereizten dituen literatur testuak eta testu arruntak, eta horregatik beharbada, literaturaren historietan bateratsu agertzen dira literatur testuak eta beste era batekoak.

Guk literaturaren definizio ahalik eta zabalena izatearen alde egin dugu. Alde batetik, horrela, beste batzuk literaturatzat har ditzaketan atal edo definizioak kanpo uztea saihesten delako, eta bestetik, sarean euskaraz literaturari buruz dagoen guztia biltzea egingarria dela uste dugulako.

11 ARETA N., GURRUTXAGAA., LETURIA I., [Begiratu bat corpus-baliabideei](#), BAT Soziolinguistika aldizkaria.

Literatur komunikazioa definitzeko eta zehazteko hainbat alderdiri begiratu izan zaio: lehenik, egileari; ondoren, mezuari edo testuari, literatur hizkerari; eta azkenik, irakurleari. Gure ikerketan, azken bi horien arteko uztarketa bat egitera jo dugu.

Literatura kontzeptu dinamikoa da, garaiari eta kultur zehatz bati erantzuten diona, bada, gure ikerlanak ere helburu hauxe du: Interneteko ekarpenak bilduz eta aztertuz, gaur egun euskal esparruan literatura zeri deitzen zaion aztertzeko ahalegina egitea, literaturaren esparrua Interneten nola zedarritu eta mugatu den ere ikusi nahian, hartara, literatura nola definitzen ari den jakiteko. Internet bidezko komunikazioa batik bat irakurle sortzaile baten parte hartzearen bitartez, eta mezu eraginkorraren bitartez egiten denez, erabaki dugu bi ikuspegi horiek batzea: mezuaren hizkera literarioarena (edo balore konnotatiboarena), eta harrera estetikarena (edo irakurlearen ikuspegiari dagokiona).

2.1. Ikuspegi diakronikoa lehenetsita

Literatur teorien bilakaerak, literatura ulertzeko modu asko egon direla eta egongo direla erakutsi digu¹². Azterketa bat egiteko unean, ikuspegi sinkronikoa edo diakronikoa erabiltzeko eztabaidaren aurrean, diakroniaren alde egin dugu guk. Izan ere, literatura bera giza prozesua da eta hartara, prozesu historikoa¹³. Gaur egun, literatur ekoizpenen izaera historikoaren aldarrikapena azterketa gehienetan topa genezake¹⁴. Gérard Genetten¹⁵ ustez, literatur historiak ez luke denboran jarraitzen diren obren azterketa soila egin beharko, baizik eraldatuz doazen formak bilatu beharko lituzke. Honela, iraupena eta aldakortasuna kontuan hartuko dira, testua tradizio generiko, historiko eta erretoriko jakin batean txertatuz. Beharrezkoa da literatur diskurtsoa denbora eta gizarte jakin horretan, eta kultur sistema horretako beste hizkuntzazko ekintzekin, zein hizkuntzazkoak ez direnekin, artistikoak izan edo ez... harremanetan jartzea.

2.2. Hizkuntza literarioaren balio konnotatiboa

Hizkuntza batean, hitzak adierazten duenaz aparte, beste hainbat esanahi jartzen dira jokoan: esaldiaren balio informatiboaz gain emoziozko balioak txertatzen dira. Hizkera konnotatiboa hizkera denotatiboari kontrajartzen zaio. Hizkera konnotatiboa maiz agertzen da hizkera arruntean ere, ironia erabiltzen denean adibidez, eta hitz joko bat egiten denean, edo bigarren zentzua erabiltzerakoan. Beraz, konnotazioa hizkera literarioak duen ezaugarria da, baina hizkera arruntarekin eta beste hizkera espezializatuekin batera. Oztopo logikoa salbatzeko asmotan, literaturaren barnean esanahien ugaritasuna gertatzen dela adieraziko dugu. Literaturan, barneko zeinuak dimentsio semantiko ugari daramatza barnean, adiera bakarretik urrunduz¹⁶.

2.3. Harreraren estetika

Harreraren estetikaren barnean, literariotasuna definitzeko orduan, ezinbestekoa da irakurleen iritzia kontuan hartzea. Literatura da, beraz, gizatalde batek literatura gisa onartzen duena, betiere, literatura lanak giza taldearen barnean diren konbentzio estetiko eta sinboliko batzuk onartzen eta

12 RETOLAZA, Iratxe, 2002, *Malkoen mintzoa*, Utriusque Vasconiae.

13 BOBES NAVES, M.C., 1985, *Teoría general de la novela. Semiología de "La Regenta"*, Gredos, Madril.

14 VALLES CALATRAVA, J., 1994, *Introducción histórica a las teorías de la narrativa*, Almería, Universidad de Almería- Servicio de Publicaciones.

15 GENETTE, G., 1989 [1972], *Figuras III*, Lumen, Bartzelona.

16 KORTAZAR, Jon, <http://www.euskaltzaindia.net/lth>

sendotzen dituen neurrian. Komunitate barnean duen harrerak bihurtuko du testu bat literario. Kritika alor honen barnean hainbat tendentzia daude. Alde batetik, “literatura da, hartaz literario gisa hitz eginez, guk definitzen duguna” esaten duena. Era oso sinple batez adierazia dago, baina literatura gizataldearen definizioz sortuko litzateke.

Iritzi sozial sinboliko horiek ez dira beti finkoak, aldagarriak dira, eta, beraz, literaturaren definizioa bera aldakorra izan daiteke gizarte baten barnean. Beste zenbait kritikarik defendatzen dute “gizartearen konbentzio estetikoek” definitzen dutela zer den literatura eta zer ez. Beraz, gizartearen oniritziak bihurtuko du testua literatura. Beste ikertzaile batzuen iritiz, oniritzi hori ez du testuaren garaiko gizarteak ematen, geroko belaunaldiak emango diote testuari oniritzia, eta denbora gainditzen duen neurrian izango da literatura testu bat.

2.4. Literatura digitala, garai digitaletan

Orain arte ezagutu dugun literaturari, inprimatuari, literatura digitala gehitu zaio azken aldian. Arte espresio berria da guztiz, oraindik ere definizio eta terminologia zehaztu gabea duena. Oraindik gainera, mundu digitalak arte sorkuntzari ematen dizkion aukerak esperimendatzeko daude. Bai eta harreraren estetikari egingo dio ekarria ere, mundu digitalak elkarreragiteko aukera eskaintzen duen heinean.

Ezbairik gabe, interneten literaturarekin zerikusia duen guztia identifikatu eta sailkatu nahian bagabiltza, ezinbestekoa da guk literatura digitala deituko diogunari ere erreparatzea, batez ere horrek etorkizuneko sortzaileen, kontsumitzaileen eta hezkuntzako agenteetan izan dezakeen interesagatik.

Izen askorekin bataiatu izan da orain arte arlo hau: literatura digitala, literatura elektronikoa, eliteratura, ziber literatura... Ez dago garbi¹⁷, esaterako, zer den e-booka, zer e-readerra, literatura digitala deitu beharko geniokeen edo literatura elektronikoa, e-literatura edo ziberliteratura, zer den e-poesia, edo e-nobela... Baina tira, jakin dakiguna da egon badagoela eta sortzen ari dela literatura bat, orain artekoarekiko desberdina dena. Guk literatura digitala kontzeptua erabiliko dugu, Laura Borrásen¹⁸ definizioari jarriki, digitalki sortzen eta digitalki soilik kontsumitzen den literaturari erreferentzia egiteko.

2.5. Literatur arloak, etiketa bihurtzeko

Lan honen helburua literaturarekin zerikusia duten guneak identifikatzea eta sailkatzea da batez ere. Gerora azalduko dugun gisan (ikus 6. atala), sailkapena egiteko etiketa sozialak erabiliko ditugu, folksonomian oinarrituta, sailkapen taxonomikoa egitera heltzeko. Halere, literatur guneen sailkapena edo etiketatze lana egiten hasi aurretik, literatur arlo bakoitzari zein definizio emango diogun zehaztea ezinbestekoa zaigu. Hona hemen arlo/etiketa nagusiei eman diegun definizioa.

2.5.1. Literatura idatziaren barruan:

- Eleberria: eleberriaz mintzatzean fikziozko istorioez hitz egiten da, eta gertatutakoak ala alegiazkoak diren gertakariak dira aipagai. Ezaugarri horrek bereizten du eleberria objektibotasun historikoa eta zehaztasuna iritsi nahi duten hainbat generotatik, hala nola, biografia, autobiografia, erreportajea eta abar. Ezaugarri horrek, hau da, fikziozko istorioa

17 RAMIREZ, Felix, <http://biblumliteraria.blogspot.com/2010/08/donde-esta-la-literatura-digital.html> Biblumliteraria

18 BORRÁS, Laura, 2005, Textualidades electrónicas, EDIUOC, Bartzelona.

kontatzeak, ez dio eragozten eleberrigileari errealitatetik hartutako hainbat gauza eta datu erabiltzea. Datuok fantasia ukitu batez edo bizitzari atxikitako ezaugarriez ziprztintzen dira eta modu horretan fikzioa eraikitzen¹⁹.

- Antzerkia: ikusleen aurrean antzezleen bitartez ekintzak irudikatzen dituen artea da²⁰. Ahozko literaturaren barnean ere sailka genezake.
- Poesia: mintzairaren antzea, zerbait adierazteko hitz neurtuaren, erritmoaren eta hoskidetasunaren harmoniaz eta irudiez baliatzen dena²¹.
- Saiakera: gairen bati buruzko buruzko gogoetak biltzen dituen hitz lauuko idazlana²².

2.5.2. Ahozko literaturaren barruan

Herri literaturak zerikusi handia du ahozko literaturarekin. Gehienetan iraganari lotzen zaio herri literatura, eta bere baitan dauzka ipuin, kantu, esaera zahar eta abarrak. Ahotik belarrira, belarritik ahora joanez, mendeak pasatzen ditu ahozko literaturak, jendearen ondare bilakatu da, eta, belaunaldiz belaunaldi, herritarren gogoak asetzen ditu²³.

Arlo zabal honen ezagutzan eta zehaztapenean, lagungarri ona da M. Eliadek ahozko literaturaz emaniko definizioa: “Noizbait inoren ahotik irten dena eta oroitzapen kolektiboak gorde duena”.

- Atsotitzak: esaera zaharrak, errefrauk
- Igarkizunak edo asmakizunak
- Bertsolaritza: jendearen aurrean edo paperean kantatu edo idatziriko ahozko estiloko euskal literatura da, herri bertsolariak gehienetan bat-batean eginiko jarduera poetikoa.
- Kopla zaharrak: kopla zaharrak eske bertsoak dira bereziki
- Dekorazio olerkiak: pieza txikiak osatzen dute. Piezatxo horiek olerkigintza estilizatu eta abstraktu baten lekuko dira, prozedura ludiko-koralez eraikiak, eta, eskuarki, leloak, haur kantuak, olerki pusketa onomatopeikoak eta abar hartzen ditu. Ez dute esanahi zehatzik izaten gehienetan²⁴.
- Kantu lirikoak: historiak gordetako maitasun kantuak
- Eresiak: hileta kantuak dira.
- Ipuinak edo alegiak: Ipuinak istorio narratibo laburrak dira. Misterioz betetako mundu batera eramaten du normalean entzulea. Mundu hori izan daiteke lurpekoa, leizeetako, itsasokoa, nola zerukoa. Historia laburra da, zeinetan agertzen diren pertsonaia bereziak, hala nola, Mari, leizeetako Jainkosa nagusia.
- Baladak: erromantze eta kontapoesia ere esan izan zaio, izan ere, funtsean izaera narratiboa duen genero poetikoa baita, ahozko tradizioari atxikia. Narratibotasunaren zenbait ezaugarri aurki dakizkioke: kontakizuneko gertakarien logika eta denboraren araberako bilakaera, ekintza unitate edo sekuentzietan banaturik egotea kontaketa, eta pertsonaien artean eratutako harremanak aldatzea²⁵.
- Maskaradak: Horiek ere antzerki mota bat dira, nahiz testu gutxi daukaten. Antzerkilariak bi taldetan banatzen dira: gorriak alde batetik, jende onak, eta beltzak bertze aldetik, jende txarrak edo buhameak.

19 OLAZIREGI, M.J., http://www.euskaltzaindia.net/literatura_ataria

20 URKIZU, Patxi eta CASENAVE, Jon, http://www.euskaltzaindia.net/literatura_ataria

21 SARASOLA, Ibon, 2007, *Euskal hiztegia*, Elkar.

22 SARASOLA, Ibon, 2007, *Euskal hiztegia*, Elkar.

23 LEKUONA, J.M., http://www.euskaltzaindia.net/literatura_ataria

24 LEKUONA, J.M., http://www.euskaltzaindia.net/literatura_ataria

25 LEKUONA, J.M., http://www.euskaltzaindia.net/literatura_ataria

- Pastoralak: Antzerki mota berezia da, herritarra, Zuberoko ondare aberatsa. Noiztik datorren ez da jakina, hipotesi ugari baitabil horri buruz.
- Astolasterrak: Berez komedia satirikoak dira, herriko gazteriak apailatuak jende batzuen jorrazteko, herrietan sortzen diren eskandalutxoengatik.

2.5.3. Literatura digitalaren barruan

Asko dira literatura digitalaren barruan bereizten diren eremuak. Oraindik eremu bakoitza zehatz definitzea zaila bada ere, lehen eremuak desberdintzea egingo dugu. Kontuan izan, eremu digitalean testua beste elementuren batekin aurkitzeko aukerak handiak direla. Musika egon liteke, argazkia, bideoa, estekak testuaren barnean, antzerkia, poesia... Kasik esan liteke, genero eta euskarri ugariaren nahasketa gertatzen ari dela garai digitalean.

Guztietan ere baliabide digitalek ematen dituzten aukerak baliatzen direla esango dugu. Esaterako, jendearen parte hartzea lortzeko aukera. Teknologi berriek hartzailak parte hartzeko aukera ematen dutelako.

- Narrazio digitala: izan sortzaile bakar batek egina, izan kolektiboa. Baliabide digitalak erabiltzen dituen edo ez, baina propioki digitalki irakurtzeko sortu den narrazioa.
- Poesia digitala. Hau ere, sortzaile bakar batekin egina izan daiteke edo bat baino gehiagoren artean egina. Eta baliabide digitalak erabili litezke edo ez, beti ere, digitalki irakurtzeko sortua.
- Bideo poema. Hitz poetikoak bideoari gehitzea, baliabide digitalak erabilia.
- Argazki poema. Hitzak argazki batekin batera jartzea, baliabide digitalak erabiliaz.
- Ziberantzerkia. Bideo formatuan emana, baliabide digitalak baliatuta, antzerkia oinarri duela.
- Blogak: literaturaz mintzo diren blog edo webguneak, edo asmo literarioa duten testu digitalak
- Bideo jokoak. Hitzekin osatutako joko elkarreragileak.

Funtsean, orain arte literaturaren eta gainerako arteen artean harremana izan bada, baliabide digitalekin arte espresio ugari konbinatzeko aukera gehitu da, hartzailarekin elkarreragina lortzeko moduan.

3. Interneten bilketa eta bilaketa lana egiteko metodologia baterantz

Behin jakinda zer den sarean aurkitu nahi duguna, bilaketa lanari ekiteko unea da. Baina horretarako, sarean bilketa eta bilaketa lana nola egin behar dugun jakitea ezinbestekoa da. Batetik, Kasher metodologia²⁶ da erabili eta erabiliko duguna. Bertan, hainbat pausu jarraitzea proposatzen da bilaketa lana egiterakoan, edo sarea mapeatzerakoan.

a) Zero gunea identifikatu. Aztertu nahi dugun eremuaren nukleoa zeintzuk osatzen duten jakin.

b) Errekurtsibitatea. Nukleo horretako kideen lanak irakurrita, erreferentzia zuzen eta irekia nori egiten dioten aztertuta, jakingo dugu zero gunea zein den.

c) Identitate irekiak eta itxiak. Behin zero gunea identifikatuta, euren estekak eta loturak aztertuko ditugu. Litekeena da inongo loturarik ez izatea. Kasu horretan, identitate itxia osatzen

²⁶ UGARTE, David, <http://lasindias.coop/mapeando-redes-con-la-metodologia-kasher/> El Correo de las Indias

dutela esango genuke. Aldiz, lotura edo linkak aztertuta pausu bakarrera zein dauden jakingo dugu, zero gune horretatik gertuen. Horiek lehen graduko identitatea osatzen dutela esango dugu.

d) Gertuko ingurunea. Eta horrela, loturaz lotura, zero gunea eta gu mapeatzen ari garen eremua nortzuk osatzen duten jakingo dugu.

Hala ere, kontuan izan behar da metodologia honekin, gu aztertzen ari garen eremukoak diren zenbait gune bazterrean utzi genitzakeela. Jakitun izan behar dugu eremuaren ehuneko ehunekoa topatzea ez dela erraza izango inoiz, mapeatze ona eginda ere. Horregatik jarriko dugu azkenean jendearen esku, bakoitzak bere ekarpena eginez, elkarren artean osatzek modua izan dadin.

Metodologia honetaz gain, bilatzaileen bidez ere egin daitezke bilaketa lanak. Hona hemen, blogak aurkitzeko bi bilatzaile:

- http://pipes.yahoo.com/pipes/pipe.info?_id=2faf20aebfed50b21a090e9a2de4d04b
- Googlen blog bilatzaile berria: <http://blogsearch.google.com/>
- <http://technorati.com/>

Gainerako webguneen bilaketak www.google.com bilatzailean egin daitezke edo <http://www.bing.com/> bilatzailean. Baita euskara Elebila bilatzailean ere: <http://www.elebila.eu/>

Hala ere, webgune eta blogak ezin dira izan bilaketa eremu bakarrak. Literaturarekin zerikusia duten twitter erabiltzaileak ere identifikatu behar ditugu. Horretarako, bilaketa lanak honela egin genitzake.

<http://manuelgross.bligoo.com/content/view/849206/9-formas-distintas-de-buscar-en-Twitter.html#content-top>

Kontuan izan behar dugu Twitter ez dela mikrobloggerako erabiltzen den sare sozial bakarra, horretarako, badira gehiago ere, identi.ca adibidez, iturburu irekietan oinarritua.

Eta Facebook edo antzerako sare sozialetan ere bilaketa lana egin behar da

<http://www.comandosdebusqueda.com/buscar/facebook/>

Hemen ere kontuan izan behar da, Facebook ez dela sare sozial bakarra, badaudela gehiago ere. Tuenti, hi5 eta abar.

Bilaketak Flickr gunean edo Youtuben. Irudiak eta hitzak elkartzen dituen guneak zeintzuk diren jakiteko bilaketa lanak modu honetara egin ditugu.

<http://www.comandosdebusqueda.com/>

Funtsean, eta oraindik osatu gabe badago ere, egin ditugun bilaketa lanak 27zapataren deliousean aurki daitezke²⁷, gerora, beste bilaketa eta bilaketa sistema batean sartuko ditugun arren, jarraian azalduko dugun bezala.

4. Edukiak antolatzeko moduak²⁸

27 EPELDE, Imanol, <http://www.delicious.com/27zapata>

28 WEINBERGER, David, <http://www.everythingismiscellaneous.com>

Behin literaturarekin zerikusia duten gune “guztiak” identifikatzean, orain, antolaketa edo sailkapen lana nola egingo dugun zehaztuko dugu, etiketa bidez edo kategoria bidez, edukiak antolatzeko bi era desberdin direlako²⁹.

Sailkapen sistema klasikoetako bat da liburutegietan baliatzen dena. Bertan, gaika antolatutako apalen bitartez sailkatu ohi dira liburuak. Ondorioz, gai jakin bateko liburu baten bila bagabiltza, aurkibidean gai hori zein apaletan dagoen begiratuz, bertara jo eta nahi dugun liburua aurkitu ahal izango dugu. Liburuak, beraz, gai edo kategorien arabera antolatzen dira, baina, beti apal bat esleitu beharko diogunez, kategoria bakarrean egon beharko du. Liburuaren kokapen fisikoak sortzen du muga hori. Arazoa sortzen da bi gai edo kategoria lantzen dituen liburu bat aurkitu behar dugunean. Liburuari kategoria bat edo kokapen bat eta bakarra eman beharko baitzaio.

Horrelako arazoak teknologiaren erabilerarekin konpondu ahal izan dira nolabait. Alde batetik, muga fisikoak gaindituta, liburu bakoitza nahi bezainbeste kategoriatan egon daiteke datu-base digitaletan. Ondorioz, «taxonomia» izenez ezagutzen den kategoria-egitura digital horretan nabigatuta lortu ahal izango dugu aurkitu nahi dugun hura.

Taxonomia hori, ordea, aurrez definitu ohi da, eta urteak pasa ahala kategoria berriak gehitu ahal izateko zailtasunek arazoak sortu ohi dituzte. Arazoak arazo, edukiak antolatzeko sistema berri baten bitartez hobetu ahal izan da sailkatzeko sistema klasiko hori, oraindik ere perfektua denik esaterik ez badugu ere. Etiketatik oinarritutako sistema, alegia. Etiketak objektua definitzen duten hitz-gakoak baino ez dira. Egungo webguneetan ohikoa da etiketen erabilera, Delicious edo bildu.net bezalako markatzaile sozialetan, esate baterako. Eta Flickr eta Youtube bezalako guneetan ere bai.

Gune hauetan, erabiltzaile bakoitzak proposen iruditzen zaizkion etiketak erabil ditzake objektu (web orrialde, liburu,...) bakoitza definitzeko. Kategoria-sistemetan ez bezala, ez dago etiketa horiek lehenagotik existitzeko beharrik, erabiltzaileak unean bertan asma baititzake. Kategoria-sistemetan sortutako egiturari «taxonomia³⁰» esaten zaio, etiketa-sistemetan sortutakoari, berriz, «folksonomia³¹» deritzo; hau da, «folk (herria) + taxonomia», herriak sortutako taxonomia. Aurretik erabili gabe zeuden etiketak erabili ahal izate honek abantaila handia dakar, izan ere, lehenago existitzen ez ziren gaiak etiketa izateko aukera dago, inongo arazorik gabe.

Etiketen sistema hau oso interesgarria da liburutegi digitalak mantendu ahal izateko. Dena dela, liburutegi fisikoek muga berdina izaten jarraitzen dute, ezin baita etiketa-sistema hau fisikoki aplikatu. Erronka interesgarria pizten du, ordea, aukera honek: nola lagun diezaioke etiketatik oinarritutako sistema batek liburutegi bati?

Sisteman liburu bat bilatzerakoan, ohiko metodoez gain (izenburuaren edo kategoriaren arabera bilatuz), etiketen bidezko bilaketa ere eskaini liteke. Honek izugarri erraztuko luke bilaketa lana. Hala eta guztiz ere, etiketen sistemak baditu muga txiki batzuk, eta horrexegatik garrantzitsua da bilatzean trebezia pixka bat izatea.

29 ZUBIAGA, Harkaitz, <http://www.gaur8.info/edukiak/20100319/189021/Etiketak-ala-kategoriak-Edukiak-antolatzeko-bi-era-desberdin>

30 WIKIPEDIA, <http://en.wikipedia.org/wiki/Taxonomy>

31 WIKIPEDIA, <http://en.wikipedia.org/wiki/Folksonomy>

WIKIPEDIA, http://eu.wikipedia.org/wiki/Folksonomia#cite_note-1

Alde batetik, sinonimiak sortutakoa. Bestetik, polisemiaren arazoa legoke. Hitz-gako batek esanahi ezberdinak izan ditzakeenez, ezin dugu, printzipioz, bere helburua zein den jakin. Esate baterako, erabiltzaile batek «gorria» etiketa erabiltzerakoan, gutxienez bi zentzutan erabil dezake: liburuak azal gorria duela adierazteko, eta komunismoaren inguruko liburuak dela adierazteko. Hori konpontzeko, bilaketak etiketa bat baino gehiago baliatuz egitea proposatzen da; hau da, «gorria+komunismoa» bilaketa batek argituko luke «gorria» etiketa horren esanahia.

Beraz, etiketen integrazioak abantaila handia ekar dezake objektuen sailkapenerako, etiketen erabilerak orain arteko hazkundera mantentzen badu behintzat.

Hori bai, guk literaturarako erabiliko dugun etiketa kopurua zehaztea komeni da, jarraian ikusiko dugun bezala, era berean, hortik kategoriak ere atera ahal izateko.

5. Etiketei balio semantikoa erantsita

Etiketa sozialen bidezko sailkapenak bilaketetan-eta laguntza handiak ekarri baditu ere, zer hobetua badago sailkapen hauetan. Izan ere, etiketen esanahia mugatua da eta folksonomia bidezko sailkapenak ekarri dituen erraztasunak mantenduz, metadatu gehiago sartzeko beharra izan da azken aldian. Alegia, gaur egun bilaketa sistema batean zerbait bilatu nahi badugu, bilatzaileak zerbait hori aurkitzen du baina adiera ezberdinei jaramonik egin gabe. Esaterako, Googlei 'Einstein' hitza klikatzen badiogu, hitz hori agertzen den gune guztiak emango lizkiguke, baina bereizi gabe Einsteini buruz ari diren orriak diren, edo adibidez, Einsteinek idatzitako testuak diren.

Horretarako, gizakiarentzat irakurgarria, baina makinentzat testu hutsa den edukari balore semantikoa ezartzeko era simple bat dira mikroformatuak. Lotura bat, bere izenburua, deskribapena eta etiketak biltzen dituen XHTML mikroformatua da xFolk. Eta informazioa, indexatu, gorde, erreferentzia egin, berrerabili edo konbinatzeko gaitasuna ematen du .

Beraz, etiketa horiek metadatu gehiagorekin gordetzea da proposatzen dena atributu batzuk erabiliaz. Atributu horiek Dublin Corek³² (DC) proposatzen ditu. Nolabait ere nazioarteko batzar bat da DC eta bertan erabaki dira edozein gune ezaugarritzeko behar diren atributu guztiak zeintzuk diren. Hasiara batean lagun talde bat bildu zen atributu horiek zehaztera eta orain batzarrak egiten dira urtez urte sortzen diren gabeziak aztertzeke eta sailkapena hobetzeko. Hau da, DCk metadata multzoak testu elementuen multzo txiki eta oinarritzko ematen du, baliabideak deskribatu eta katalogatu ahal izateko. Oinarritzko hamabost atributu edo testu eremu erabilita, DC metadata dokumentuak baliabide fisikoak eta digitalak deskribatu ditzake, besteak beste, liburuak, bideoak, soinuak, irudiak, testu fitxategiak eta webguneak bezalako baliabide konposatuak. DCren implementazioek normalean XML erabiltzen dute, eta RDF-n oinarrituta daude.

Dublin Core DCMI (Dublin Core Metadata Initiative) erakundeak garatutako metadatu mota da, liburutegi digitalaren edukia definitzeko baliagarria. Inplementazioa XML eta RDFen oinarritzen da. Hau dena, beraz, RDFaren³³ bidez egingo da, dokumentuetan RDF moduan datu semantikoak sartzeko W3Cek³⁴ proposaturiko XHTMLren hedapen multzoa erabiliz. Honela, atributu hauetan informazioa zehaztuz, eduki semantiko gehiago ematen zaio XHTML entitateari.

32 DUBLIN CORE, <http://dublincore.org/>

33 WIKIPEDIA, http://en.wikipedia.org/wiki/Resource_Description_Framework

34 <http://www.w3.org/>

Dublincore atributuak: denak ez dira erabili behar eta batzuetan errepikatu egin daitezke.

1. maila	2. maila	3. maila
-Identifier Title Subject	Description Source Relation Coverage Creator Publisher Contributor Date	Type Format Rights Language

Hiru multzotan banatuta daude, sareko guneak sailkatzerakoan modua horrela erraztu egin litekeelakoan. Egoitz Aldakurrek Gorka Julioren gidaritzapean eginiko sailkapena da hau, eta funtsean, honelako programa bat sortu dute.

Address

Title

Description

Tags

Privacy

- [+]
 - License
 - Language
 - Data
 - Format
 - Type

subject
 source
 relation
 creator
 publisher
 contributor
 coverage

Azken finean, goiko irudian ageri den moduko gune bat da programa. Eta bertan jarriko ditugu aurkitutako sareko guneen helbideak, datu base bat osatzeko.

5.1. Hamabost atributuak eta bakoitzari esleitutako etiketak


Hamabost metadata elementuak edo atributuak jarraian zerrendatu ditugu, eta bakoitzaren definizioa eman dugu. Azalpen hori DCren dokumentuetatik atera dugu³⁵ eta haiek emandako definizioak jarraituko ditugu, nahiz eta zenbait arazo ere sortzen dizkigun guneak nahi bezala identifikatzerakoan. Esaterako, gaia eta edukia bereizterakoan. Hala ere, atributu bakoitzean jarriko ditugun etiketak edo tagak zeintzuk diren zehaztu ditugu, zehaztu daitezkeenetan. Beti ere jakitun, aurreikusi ditugun etiketak baino ez ditugula jarri, eta zabalik utzi dugula etiketa berriak etorkizunean edozein erabiltzailek jartzeko aukera.

Gune guztiak identifikatu eta kontsultatzeaz gain, datu base batean gorde ahal izateko programa bat dugu. Programa horretan sartuko ditugu datu guztiak. Kontua da, gero eta gune gehiagok ondoren azaldu ditugun DCren atributuak adierazita dituela, eta automatikoki agertuko dituela eskatutako atributu asko. Nola? Guk gunearen helbidea programan kopiatzearekin batera, programak berak aurkitzen ditu aukeratu dugun gune horrek zehazten dituen atributuak. Normalean, izenburua eta hizkuntza gutxienez, identifikatuta egoten dira.

Aproba egin nahi duenak, gune honetara sartu besterik ez du:

<http://www.mundurat.net/harrika/admin/scuttle/>

Izena eta pasahitza eskatzen ditu guneak. Jarri administratzailearen tokian “kude” eta pasahitzean “atu”. Erabiltzaile bat sortu eta egin aproba. Aukeratu datu basean gorde nahi duzun gunea. “add to bookmark” aukeratu eta kopiatu helbidea “addrees” atalean. Segundo gutxitan, aukeratu dugun gune horrek ematen dituen datuak identifikatuko ditu. Falta diren beste guztiak jarri beharko ditugu guk, batez ere tag atalean daudenak. Hor gainera, jartzen dugun tag bakoitzeko koma erantsi ostean, zuriunerik utzi gabe, tag horri zein atributu eman nahi diogun galdetuko digu. Ikus hurrengo irudia hobeto ulertzeko.



Jatorrizko izenean jarri ditugu atributuak, ingelesez, nazioartean horrela erabiltzen direlako eta horrela jartzen direlako guneak ezaugarritzerakoan.

Ikus hurrengo irudia, eta begiratu DC jartzen duten eremuak nola dauden adierazita. Bat da DC title, bestea, DC description eta horrela atributu zenbait identifikatuta daude.

³⁵<http://dublincore.org/documents/usageguide/elements.shtml>


```

1 <!DOCTYPE html PUBLIC "-//W3C//DTD XHTML 1.0 Strict//EN" "http://www.w3.org/TR/xhtml1/DTD/xhtml
2 <html xmlns="http://www.w3.org/1999/xhtml">
3 <head>
4 <meta http-equiv="Content-Type" content="text/html; charset=iso-8859-1" />
5 <title>www.harrika.net</title>
6 <link rel="stylesheet" type="text/css" href="main.css" />
7 <link rel="schema.DC" href="http://purl.org/dc/elements/1.1/" />
8 <meta name="DC.identifier" content="http://www.harrika.net"/>
9 <meta name="DC.title" content="Harrika Taldea"/>
10 <meta name="DC.creator" content="aldakur"/>
11 <meta name="DC.subject" content="Musika"/>
12 <meta name="DC.description" content="Harrika musika taldearen web ofiziala"/>
13 <meta name="DC.language" content="eu, es"/>
14 <meta name="DC.rights" content="http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu"/>
15
16 <link rel="stylesheet" type="text/css" href="sdmenu/sdmenu.css" />
17 <script type="text/javascript" src="sdmenu/sdmenu.js">
18 /*****
19  * Slashdot Menu script- By DimX
20  * Submitted to Dynamic Drive DHTML code library: http://www.dynamicdrive.com
21  * Visit Dynamic Drive at http://www.dynamicdrive.com/ for full source code
22  *****/
23 </script>
24 <script type="text/javascript">
25 // 

```

1.TITLE

Baliabideari edo identifikatu nahi dugun guneari emandako izena. Normalean, baliabidea formalki izen horrekin ezagutzen da.

Programak izenburua automatikoki identifikatzen du. Bestela, gune horri dagokion izenburua guk jarriko genuke eskuz.

2.CREATOR

Baliabideko edukia sortzearen ardura nagusia duen entitatea. Adibidez: pertsona, erakundeak edo zerbitzua. Sortzailearen izena erabiltzea komeni da entitatea izendatzeko.

Guk erabiliko ditugun etiketak honako hauek dira: norbanakoa, taldea, erakunde akademikoa, erakunde pribatua, administrazio publikoa, enpresa, elkarte, argitaletxea, ezezaguna.

3.SUBJECT

Baliabidearen edukia nagusia. Normalean, edukia laburtzen duten hitz-esaldi gakoak edo sailkapen kodeak erabiltzen dira. Hiztegi kontrolatu edo sailkapen eskema formal batetik balio batzuk aukeratzea gomendatzen da.

Literatura. Etiketa hau identifikatzen ditugun gune guztiei jarriko diegu, denek komunean izango duten etiketa bat izatearren. Ondoren sailkapen bat egingo dugu. Hori bai, gune batzuk sailkapen

nagusi honetako atal bat izan dezakete, beste batzuk bi eta hirurak izan ditzakeenik ere egon daitezke. Bereizi ditugun atal nagusiak hauexek dira. Batetik *literatura mintzagai*, literaturaz ari diren gunean identifikatzeko. Bestetik, *literatur sorkuntza*, sormen lanak direnei erreferentzia egiteko. *Literatura langai* etiketa erabiliko dugu literatur lanak egiteko tresnak ematen dituzten guneak zein diren esateko. Eta azkenik, laugarren bat, *literatura biltegia* izenekoak, literatur lanak jasotzen eta biltzen dituen guneak identifikatzeko.

A. Literatura mintzagai (literaturaz mintzo diren guneak identifikatzeko)

(hauetatik bat edo beste izan daiteke eta ondoren, beheko ataletako bat) obra, idazlea (biografia, autobiografia), historia, kritika, teoria, ikerketa, hezkuntza, nazionala, metaliteratura, paraliteratura, haur, gazte, heldu, beltza, erotikoa, fantastikoa, historikoa, abentura, zientifikoa, klasikoa, umorea, erromantikoa, queer, gay, erlijiosoa, zientzia fikzioa, feminista, konparatua, lokuzioak...

1. Ahozkoa

Bertsolaritza, koplak zaharra, esaera zaharra, atsotitza, balada, eresia, kantua (herri, rap, rock, elektronikoa), zinema, audioliburuak, marrazki bizidunak, publizitatea, antzerkia, pastorala, astolasterrak, maskaradak, slam

2. Idatzizkoa

Eleberria, ipuina, poesia, antzerkia, komikia, publizitatea, zitak, saiakera, artikulak

3. Literatura digitala

1. narrazio digitala

bideo narrazio digitala, audio narrazio digitala

2. poesia digitala

bideo poema digitala, audio poema digitala, irudi poema digitala

3. ziberantzerkia

4. bideo jokoak

5. postak

B. Literatur sorkuntza (sormen artistikoa duten guneak identifikatzeko)

Jatorrizkoa/itzulpena

Poesia, eleberria, ipuina, saiakera, komikia, antzerkia, haur, gazte, heldu, beltza, erotikoa, fantastikoa, historikoa, abentura, zientifikoa, klasikoa, umorea, erromantikoa, queer, gay, erlijiosoa, zientzia fikzioa, feminista, lehiaketa, artikulua...

2.1. Ahozkoa

Bertsolaritza, koplak zaharra, esaera zaharra, atsotitza, balada, eresia, kantua (herri, rap, rock, elektronikoa), zinema, audioliburuak, marrazki bizidunak, publizitatea, antzerkia, pastorala, astolasterrak, maskaradak

2.2. Idatzizkoa

Eleberria, ipuina, poesia, antzerkia, komikia, publizitatea, zitak, saiakera, artikulak

2.3. Literatura digitala

2.3.1. narrazio digitala

bideo narrazio digitala, audio narrazio digitala

2.3.2. poesia digitala

bideo poema digitala, audio poema digitala, irudi poema digitala

2.3.3. ziberantzerkia

2.3.4. bideo jokoak

2.3.5. postak

C.Literatura langai. (Literatura lantzeko diren guneak zein diren jakiteko)
interaktiboa, foro akademikoa, foro informala, gune didaktikoa, sare soziala...

D.Literatura biltegia. Bilketa lana egiten duten guneei erreferentzia egiteko.

Poesia, eleberria, ipuina, saiakera, komikia, antzerkia, haur, gazte, heldu, beltza, erotikoa, fantastikoa, historikoa, abentura, zientifikoa, klasikoa, umorea, erromantikoa, queer, gay, erlijiosoa, zientzia fikzioa, feminista, lehiaketa, artikulua...

4.1. Ahozkoa

Bertsolaritza, koplak zaharra, esaera zaharra, atsotitza, balada, eresia, kantua (herri, rap, rock, elektronikoa), zinema, audioliburuak, marrazki bizidunak, publizitatea, antzerkia, pastoralak, astolasterrak, maskaradak

4.2. Idatzizkoa

Eleberria, ipuina, poesia, antzerkia, komikia, publizitatea, zitak, saiakera, artikulak

OHARRA: Azpialal batean baino gehiagotan errepikatzen direnez etiketak, azpialal (mintzagai, sorkuntza, biltegia) bakoitzaren etiketa jarriko dugu beti azpi barra baten ondoren, bereizgarri modura. Alegia, "poesia" etiketa zehaztu egin beharko dugu esaterako, mintzagai den, sorkuntza edo biltegi. Eta horrela denekin.

4.DESCRPTION

Baliabidearen edukia deskribapena. Edukia deskribatzen duen testu librea egin daiteke.

Programak deskribapena automatikoki identifikatzen du normalean. Bestela, gune horri dagokion deskribapen bat egingo genuke. Deskribapen horri doakoa edo ordaindua den erantsiko diogu...

5.PUBLISHER

Baliabidea eskuragarri jarri duen entitate arduraduna. Adibidez: pertsonak, erakundeak, zerbitzuak. Argitaratzailearen izena erabili behar litzateke entitatea adierazteko.

Argitaletxea, museoa, norbanakoa, taldea, erakunde akademikoa, erakunde pribatua, administrazio publikoa, enpresa, elkarteak, argitaletxea, ezezaguna...

6.CONTRIBUTORS

Baliabidearen edukietan ekarpenak egin dituen entitate arduraduna. Adibidez: pertsonak,

erakundeak, zerbitzuak. Normalean, ekarpena egin deunaren izena erabili behar litzateke entitatea adierazteko.

Taldea, norbanakoa, taldekideen izenak, erakunde-instituzioak, argitaletxea, museoa, norbanakoa, taldea, erakunde akademikoa, erakunde pribatua, administrazio publikoa, enpresa, elkarte, argitaletxea, ezezaguna...

7.DATE

Gertakari batekin lotutako data bat, baliabidearen bizitzan. Normalean, data baliabidearen sorrera egunarekin edo eskuragarritasunarekin bat egingo du. Data idazteko formatu egokia hauxe da: UUUU-HH-EE (urtea-hilabetea-eguna)

Baliabide martxan jarri zeneko data, edo baliabide horren data. Edo ezezaguna, zehazten ez bada...

8.TYPE

Baliabidearen edukiaren izaera edo generoa. Typen barruan sartuko ditugu kategoria orokorrak, funtzioak edo generoak deskribatzen dituzten terminoak. Gomendatzen da hiztegi kontrolatutik aukeratzea balioak (adibidez, hemendik: [DCMI Type vocabulary](#)). Baliabidearen izaera fisiko edo digitala deskribatzeko, FORMAT elementua erabiliko dugu.

8.1. Multimedia (euskarri asko baldin baditu), hipertestua, irudia, bideoa, audioa, testua, infografia, jokia, liburua, eliburua

8.2. biltegia (gordailu lanak egiten dituen gunea, autore baten baino gehiagoren lanak bilduz, arlo baten inguruko bilketa lanak egiten dituen), ataria, bloga, webgunea, bilatzailea, gida, katalogoa, entziklopedia, hiztegia, wikia, twitter, facebook, agenda, linka, programak...

8.2.1. Hedabidea: aldizkaria, egunkaria, astekaria, noizbehinkaria, irratsaioa, irratia, telebista, programa, berria, erreportaia, kronika, elkarrizketa

8.3. irekia (partehartzeko aukera ematen badu), edo itxia

8.3.1. iruzkinak, posta (informazioa postaz bidaltzeko aukera ematen badu, elkarbanatu (Informazioa konpartitzeko aukera ematen badu eta zehaztu zeren bidez: facebook, twitter, delicious..), foroa (eztabaida foro bat zabaltzen bada), inkesta (galdetegi bat egiten bada)...

9.FORMAT

Baliabidearen izaera fisikoa edo digitala zehazten da hemen. Normalean, formatuak baliabidearen media-type zein den adierazi beharko luke. Neurria eta iraupena bezalakoak ere jarri beharko genituzke. Formatua erabiltzen da softwareak, hardwareak edo beste edozein tresnak baliabidea ezagutu eta erabiltzeko behar duena zehazten du.

Orotarikoa, mp3, .odt, .ogg, .jpg, .php, neurria (...MGbytes), iraupena (segundu, orri...)

10.IDENTIFIER

Baliabidearen erreferentzia zehatza da. Gomendatzen da sail baten bidez edo identifikazio sistema formalarekin bat datorren zenbakiarekin identifikatzea. Adibideak izan daitezke Uniform Resource Identifier (URI) erabiltzea URLarekin batera, edo Digital Object Identifier (DOI) erabiltzea edo the International Standard Book Number (ISBN).

URI, URL, ISBN...

11.SOURCE

Aztertzen ari garen baliabidea nondik sortua den adieraziko dugu. Zein den baliabidearen iturria alegia. Baliabidearen iturria bat eta bakarra izan daiteke edo partekatua.

Ale zenbakia, orri zenbaki tartea, halako blog edo webguneko post edo testua, hainbagarren kantua... ala webgunea, bloga bere osotasunean...

12.LANGUAGE

Baliabidearen hizkuntza edo hizkuntzak jarriko dira hemen. Hizkuntzak ez dira osorik idatziko, bi edo hiru letretara ekarriko dira, ISO 639an adierazita dauden bezala³⁶.

Eu, es, cat, en...

13.RELATION

Baliabideak loturak dituen beste guneen berri emango da.

Gune horrekin lotura daukaten beste guneak, pertsonak, erakundeak identifikatzea...

14.COVERAGE

Baliabidearen edukiaren aplikazio eremuari egiten dio erreferentzia. Coverage atalak normalean lekuari (izena edo koordinada geografikoak) egiten dio erreferentzia edo denbora tarteari (data, data eremua). Leku izenak erabiltzerakoan Thesaurus of Geographic Names³⁷ bezalako lekuetan ageri diren izenak erabiltzea aholkatzen da.

Espazioa eta denbora, lekua eta denbora tartea, uneguneak...

15.RIGHTS

Baliabideari aitortu zaizkion eskubideak jarriko dira eman.

Creative commons, Copyright, aitortu gabe...

³⁶XML, <http://xml.coverpages.org/iso639a.html>

³⁷ http://www.getty.edu/research/conducting_research/vocabularies/tgn/

6. Ondorioak

Proposamen honek euskarazko literatur testuen bilketa lan soila baina zerbait gehiago izan nahi du, beraz. Literaturaren definizioan sakontzeaz gainera, sortzen ari den literatura garai berriaren emaria jaso eta horretan sakondu nahi duelako. Baliagarria izango da hori, orain arte ezagutu dugun literaturarekiko konparazioa egiteko estrategia diskurtsibo eta linguistikoei dagokienean. Baliagarria izango da hori, euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten kulturgintzako zenbait behar identifikatzeko, edo zenbait ikerketa abian jartzeko: hipertestuaren ikuspegitik, literatur teoria eta erkatua aberasten joateko, produkzio eta harrera modu berriak ikertzeko. Ezin ahaztu horrek irakaskuntzan egin dezakeen ekarria ere, literatura baliabide berriak erakutsiz, sortzaile berriak formatzeko estrategia diskurtsibo eta linguistiko berrietan sakonduz. Ez eta corpusak aztertzen ari diren egitasmoak osatzeko egin dezakeen ekarpena ere: Hizlan, Behatokia, Ricoterm...

Ekarpen horiek jasotzeko, baina, literatur testuak definitu ditugu, literaturaren ikuspegi diakronikoa lehenetsita, ikuspegi konnotatiboa eta harreraren estetikan oinarrituz. Indarrak jarri ditugu, gainera, literatura digitala zer den bereizten, orain arte ezagutu dugun literaturarengandik bereiziz, orain arte ezagutu dugun sailkapenak ez duela balio adieraziz, generoetan eta euskarrietan oinarritu behar delako sailkapena egiteko.

Literatura atalak bereizi ondoren, gaur egun interneten bilaketa eta bilketa lanak nola egiteko Kasher metodologiaren alde egin dugu batez ere, baina jakitun izanez, gaur egun sarean dagoen guztia %100ean biltzea ezinezkoa dela. Horregatik, eta [bi puntu zero filosofiari erantzunez](#),³⁸ jende guztiaren eskura jarriko da egindako guztia, edozeinek izan dezan bere ekarpenak egiteko aukera, edozeinek izan dezan bilketa lanera sartu nahi duen gunea sartzeko aukera.

Proposamen honetan, gaur egun, garai digitalak sailkapena egiterakoan ekarri dituen berrikuntzak ere azaldu ditugu. Espazio fisikoak sortzen zituen trabak gaindituta, sailkapen taxonomikoa egitetik hasi beharrean, folksonomian oinarritzea zergatik erabaki den azaldu dugu, etiketa sozialek egin dezaketen ekarrian eta konbinazioan oinarrituta.

Ondoren, etiketa horiei balio semantikoa eransteak duen garrantzia azpimarratu dugu, horretara baitoa internet: orain arte kategoria berdineko hitzak izan direnei, balio semantikoa ematera. Horretarako, Dublin Corek egindako ekarria hartu dugu aintzat. Edozein baliabide, izan fisikoa, izan digitala sailkatzeko hamabost atributu eman dituelako, eta gaur egun, erreferentzia nagusi bihurtzen ari delako nazioartean.

Behin hori eginda atributu bakoitzari jarriko dizkiogun etiketak zeintzuk diren zehaztu dugu. Eta hor sortu zaizkigu arazo batzuk. Alde batetik, programari dagozkionak, informatikoak dei genitzakeenak, oraindik ere erabat findu gabe daudelako zenbait kontu: izen bereko etiketa jartzean atributu ezberdinei errorea ematen du, edo 'type' atributuan ez ditu bi etiketa baino gehiago onartzen, edo 'relation' atributuan ez ditu webguneetako helbideak hartzen. Eta abar. Eta beste aldetik, subject atributuan pilatu zaigu sailkapenaren pisu handiena. Eta edukia eta gaia behar bezala bereiztea izango da eman beharreko hurrengo pausua, bai eta literatura digitala etiketatze bidean sakontzea eta gehiago zehaztea.

Baina, oro har, aplikazio praktikoa ikusgai jarrita, argi geratu da lan honekin nora iritsi nahi dugun. Gainera, etiketatze irizpideak azalduta, lan honen egilea ez den beste batek ere jarri ditu etiketak eta

38 EPELDE, Imanol, <http://www.27zapata.com/?p=369>, Bizitza 2.0 bizitzeko kakoak

sailkatu ditu gune batzuk. Horrela, jakin dugu neurri handi batean bat datozela batek eta besteak jarri dituen etiketak.

Lan horretan jarriko gara hurrengo hilabeteetan. Izan ere, proposamen honek, Hizlan proiektuaren laguntza izan du (DIPE 08/16). Horrela, azken bururaino eraman ahal izango dugu hemen hasitako proiektua.

7. Bibliografia

- BIBER, Douglas eta Jerry KURJIAN (2009) Towards a taxonomy of web registers and text types' in *Corpus Linguistic and the web*. Hundt, Nesselhauf & Biewer (ed.) Amsterda: Editions Rodopi, 109-131.
- BOBES NAVES, M.C., 1985, *Teoría general de la novela. Semiología de "La Regenta"*, Gredos, Madril.
- BORRÁS, Laura, 2005, *Textualidades electrónicas*, EDIUOC, Bartzelona.
- FLETCHER, William H., 2009, 'Concordancing the web' in *Corpus Linguistic and the web*. Hundt, Nesselhauf & Biewer (ed.) Amsterda: Editions Rodopi.
- GARABIDE ELKARTEA, 2010, *Euskararen berreskuratzea, Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*, Garabide
- GENETTE, G., 1989 [1972], *Figuras III*, Lumen, Bartzelona.
- RETOLAZA, Iratxe, 2002, *Malkoen mintzoa*, Utriusque Vasconiae.
- VALLES CALATRAVA, J., 1994, *Introducción histórica a las teorías de la narrativa*, Almería, Universidad de Almería- Servicio de Publicaciones.
- WEINBERGER, David, 2007, *Everything is Miscellaneous. The power of the new digital disorder*, New York, Hot Paperbacks

7.1. Webliografia

- ARETA N., GURRUTXAGA A., LETURIA I., [Begiratu bat corpus-baliabideei](#), BAT Soziolinguistika aldizkaria.
- DUBLIN CORE, <http://dublincore.org/>
- DUBLIN CORE, <http://dublincore.org/documents/usageguide/elements.shtml>
- ELHUYAR, <http://www.corpeus.org/cgi-bin/kontsulta.py>, CorpEus, Internet euskarazko corpus gisa,
- EPELDE, Imanol, <http://www.delicious.com/27zapata>
- EPELDE, Imanol, <http://www.27zapata.com/?p=369>, Bizitza 2.0 bizitzeko kakoak
- EPELDE, Imanol, *Euskarazko komunikabide multimedia baten proiektua*, www.gaztegaragazte.org, EHUko masterreko moodlean.
- GILLES-MAURICE de Schryver, [Web for/as Corpus: A Perspective for the African Languages](#), Ghent University, Belgium & University of Pretoria, South Africa
- HERMENEIA, <http://hermeneia.net/esp/index.html>
- http://www.getty.edu/research/conducting_research/vocabularies/tgn/
- KORTAZAR, Jon, <http://www.euskaltzaindia.net/lth>
- LEKUONA, J.M., http://www.euskaltzaindia.net/literatura_ataria
- LETURIA I., GURRUTXAGA A., ALEGRIA I., EZEIZA A., [CorpEus, a 'web a corpus' tool designed for the agglutinative nature of Basque](#), Elhuyar R&D, IXA taldea, 2007
- OLAZIREGI, M.J., http://www.euskaltzaindia.net/literatura_ataria
- RAMIREZ, Felix, <http://biblumliteraria.blogspot.com/2010/08/donde-esta-la-literatura-digital.html>
- Biblumliteraria
- SARASOLA, Ibon, 2007, *Euskal hiztegia*, Elkar.
- UGARTE, David, <http://lasindias.coop/mapeando-redes-con-la-metodologia-kasher/> El Correo de las Indias
- URKIZU, Patxi eta CASENAVE, Jon, http://www.euskaltzaindia.net/literatura_ataria
- VOLK, Martin, [Using the Web as Corpus for Linguistic Research](#), University of Zurich, Seminar of

Computational Linguistics. Winterthurerstr.

W3C, <http://www.w3.org/>

WEINBERGER, David, <http://www.everythingismiscellaneous.com>

WIKIPEDIA, <http://en.wikipedia.org/wiki/Folksonomy>

WIKIPEDIA, http://en.wikipedia.org/wiki/Resource_Description_Framework

WIKIPEDIA, <http://en.wikipedia.org/wiki/Taxonomy>

WIKIPEDIA, http://eu.wikipedia.org/wiki/Folksonomia#cite_note-1

XML, <http://xml.coverpages.org/iso639a.html>

ZUBIAGA, Harkaitz, <http://www.gaur8.info/edukiak/20100319/189021/Etiketak-ala-kategoriak-Edukiak-antolatzeko-bi-era-desberdin>